



lazko Zubietako jaietako herri afari moztortua.  AIZPEA AIZPURUA

Tradizioari eskua emanez, dantzan datoz Zubietako jaiak

Hilaren 24an hasi eta 31ra arte luzatuko dira Zubietako jaiak, ohi bezala. Egun potenteak dira horiek herrian, eta egun osoko parrandak antolatu ditu jai batzordeak, Xabat Zuriarrain eta Jon Uribarre-na kideek azaldu dutenez.

 Nagore Garmendia Artano

Zubietan hasi da, jada, jaietarako atzera kontaketa, eta herritarrek ez dute galtzen jai batzordeari datorrenaz xehetasunez galdetzeko aukera. Aurtan, gainera, herritarren eskaerei entzun, eta egitarau tradizio-nal bezain osatua prestatu dute «adin guztietarako». Xabat Zuriarrain eta Jon Uribarre-na jai batzordeko kideek argi dute: aurtengo helburu nagusia jai herrikoiak lortzea izan da.

Tradizioari eskua emanez

Indar berezia jarri nahi izan dute aurtan festa tradizionalen esentzia berreskuratzen. «Nahiko festa tradi-zionalak egiten saiatu gara: erromeria dezente sartu ditugu, uste dugulako festetako girorik hoberena jartzen duten eta adin guztietarako diren tal-deak direla», azaldu du Zuriarrainek.

Egunean zehar ere egitaraua zabal-tzen saiatu dira, urteroko mutxikoak,

bertsolariak eta soka dantza manten-duz. Azken bi ekitaldi horiek «inoiz huts egiten ez duten» hitzorduak dira. Gaueko ordu txikietan, aldiz, gazteen-tzako parrandarako giroa nagusituko da, estilo askotariko musika uztartuz.

Herriaren eskaerei erantzunez, erromeria gehiago eta trikitilariak izango dira Zubietako jaietan, tradizioari eutsiz

Sega apustua, berriena

Aurtengo berezitasun nagusien artean sega apustua dago, jada herritarren artean zeresan handia ematen ari dena. Zuriarrain eta Uribarre-na euren aurka arituko dira [ikus 19. orria]. Urte osoa daramate entrenatzen, eta ikasitakoa erakusteko unea izango da hilaren 30eko arratsaldean egingo duten desafioa.

Herri giroaz harago, kanpoko jendea erakartzeko ahalegina ere egingo dute aurtan, nahiz eta badiren egun batzuk, berez, jendez gainezka egoten direnak. Zuriarrainek zehaztu duenez, hilaren 24a eta 31 izaten dira potenteenak, eta, hortaz, «25ean eta 30ean jende asko etortzen da; gehiegi batzuetan».

Gaztetasuna eta gogoa

Jaiak antolatzeak lan handia eskatzen du, eta Zubietan gazteak ari dira jo eta su horretan. Uribarrenak eta Zuriarrainek 18 eta 19 urte dituzte, hurrenez hurren, eta beraiek dira batzordeko gazteenetakoak. Halere, belaunaldi ezberdinen arteko nahasketa «oso aberasgarria» dela uste dute.

Uribarrenak aitortu du zerbait antolatzen denean erraza dela kritikak jasotzea eta zaila, ordea, denak kontentatzea. Baina iaz herritarrei luzatutako galdeketa baten bidez jaso zituzten eskaerei erantzuten saiatu dira aurtan: erromeria gehiago eta trikitilariak jarri dituzte. «Aurtengo festak jende gehie-nari gustatuko zaizkiola uste dugu», adierazi dute. ●



«Plazan erakutsi beharko dugu nor den indartsuena»

XABAT ZURIARRAIN ETA JON URIBARRENA

Zubietako jai batzordeko kideak

Aurtengo jaietan sega apustua egitea adostu zuten Jon Uribarrenak (Zubieta, 2008) eta Xabat Zuriarrainek (Zubieta, 2007). Urte osoa entrenatzen eman ostean, hilaren 30ean izango da desafioa, herriko plazan.

✍ N. Garmendia Artano
📷 Zubietako jaiak

Nolatan sega apustu bat?

Jon Uribarrena (J.U.): Aurreko urtean egin genuen apustua, parrandan geundela. Harro-harro eginda,

txosnan harrapatzen genituen guztiei esango genien... Orain konturatu gara asko dela adostu duguna.

Xabat Zuriarrain (X.Z.): Nik aitari

kontatu nionean erotzat hartu ninduen, hasieran...

Baina ibiliak zarete segan?

(J.U.): Aurreko urtera arte, ez! Ni amonaren etxean ibili nintzen sega herdoildu bat txukuntzen, eta horrekin aritu naiz entrenatzen.

Nola ikusten duzue elkar?

(J.U.): Ni urtean zehar saiatu naiz, astean behin, behintzat, entrenatzen. Egia da, neguan belar gutxi eta txarra egoten denez, fundamentu handirik gabe ibili naizela, baina udarekin batera, pixkanaka, erritmoa hartzen saiatu naiz.

(X.Z.): Horrek eta lanak denbora asko kentzeak ez du esan nahi proba txarra izango denik... Gure artean, behintzat, apustu serioa da... Azkenean, herriaren aurrean zaude, eta herrian izena edukitzea dago jokoan [barrez]!

Datorren urtean, orduan, beste apustu bat egingo duzue, ezta?

(J.U.): Ni, dagoeneko, buruari bueltak ematen hasi naiz... Xabatekin batera bi segalari, segalari profesional baten kontra!

Lagunak bai, baina orain arerioak ere bazarete!

(X.Z.): Lagunak gara, arerioak izatearena bigarren plano batean dago! Hori bai, behin sega hartuta, akabo broma guztiak... hor erakutsi beharko da nor den hobe!

(J.U.): Lehengusu txikiak gara, eta apustuan argi geratuko da familiako indartsuena nor den... Ni konfiantzarekin noa. ●

bugati
ERRETEGIA

Ikatz-brasan egindako oilaskorik onena

UDA ORDUTEGIA

Asteartetik ostegunera irekita
18:30tik 23:30arte
Ostirala, larunbata eta igandeak
12:00tik 23:30arte

Pº de Arrapide, 74 • 20160 Zubieta (Donostia)

☎ 943 37 76 62 ✉ bugatierretegia@gmail.com 🌐 www.bugatierretegia.com



18:00

Desafiyua.

Jarraian, buruhandiak.

00:00

Kontzertuak: Laket erromeria eta Txolas DJ-a.

IGANDEA 26

11:30

Sagardo dastaketa.

14:00

Jubilatuen bazkaria Yoko Garbi elkartean.

18:00

Andatzara Igoera II. Mendi Lasterketaren hasiera.

Jarraian, sardina eta piper jana eta buruhandiak.

OSTIRALA 24

19:00

Jaien hasiera: txupinazoa eta buruhandiak.

Jarraian, txosnen irekiera, lruztak girotuta.

20:45

Herri afari mozorrotua.

00:30

Itzal taldearekin dantzaldia.

LARUNBATA 25

09:00

Esna deia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

11:00

Meza nagusia.

Hamaiketakoa, Yoko Garbi elkartearen eskutik.

Soka dantza.



19:30

Bertsolariak:

Andoni Egaña, Alaia Martin, Eneko Lazkoz
eta Iñigo Mantzisidor *Mantxi*.

Gaiak jartzen: Zortzitan bertso eskola.

ASTEARTEA 28**06:00**Oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alazne
trikitilariak alaituta.**14:30**

Oilasko biltzaileen itzulera.

ASTEAZKENA 29**10:00**

Jolasen hasiera.

14:00

Umeen bazkaria.

16:00

Jolasen jarraipena.

Ondoren, txokolate jana.

18:00Erraldi eta buruhandi erakustaldia,
Usurbilgo erraldi konpartsaren eskutik.**OSTEGUNA 30****12:00**

Gaztetxoan Yoko Garbi erakustaldia.

16:00Mus txapelketa Yoko Garbi elkartean
(15:30ean, izen ematea).**18:00**Sega desafiua:
Uribarrena I - Zuriarrain II.Jarraian, bertsolariak girotutako krokepo-
tea txosnan eta buruhandiak.**20:30**

Herri afaria.

23:00Kontzertuak: Zutik elektrotxaranga,
Trikidantz eta Vidu DJ-a.**OSTIRALA 31****10:30**

Meza.

11:00

Zubietarren arteko errebote partida.

18:00

Izer eta Alabier trikitilariak.

20:30

Oilasko biltzaileen afaria, Bugati erretegi.

23:30Traka.
Bukatzeo, txosna hustutzea.

ARATZ
zabaleta anaiak

Jai alaitsuak opa dizkizuegu!

Igara Bidea, 15, 20018 Donostia, Gipuzkoa Tel.:943-21 92 04